

## BELAUN-MAKURTZEA ALDAREKO SAKRAMENTU SANTUAREN AURREAN.



Eleizaren aurreneko denboretatik usatzen dan *belaun-makurtzea*, egiaz eta benaz Sagrarioan dagoen Jesukristorenganako onra eta adorazio aundiko menekioaz gañera, da berari egiten zaizkan bidegabe-kerien ordañgarri bat. Eta egiaz, baldiñ kristau asko arkitzen badira zorigaiztoan Jaun aundiaren aurrean itzketan eta farraz plazaren erdian bezela, eta igaro lotsagabekiro edo errespeto eta begirune siñalerik eman gabe; baitaere da egia persona onak ezagutzen dirala Jaun guzien Jaunaren aurrean makurtzean agertzen duten modestia, mendetasun eta erreberenzian.

Azaltzen ari geran gai oni chikia iruditu arren, begiratu bear zayo Erljioaren aldetik ezezik, despreziatu bear ez dan beste alde batetik ere. Belaun makurtze erreberenzia gaizki egiten duenak, ez dio ekartzten Jaungoikoari zor zayon begirunea, eta gañera egiten du aziera onak eskatzen duen kontrako utsegitea. ¿Baliteke orrako ez erreberenziak, ezpada gorputz irristada, siñu, kabriola edo gauza okerragoren bat obeto diruditen asko belaun makurtze beziñ gauza farragarriagorik?

¡Zenbat diran belaunarekiñ lurra joaz erreberenzia osoa beñere egiten ez dutenak! Geienak utzi oi dute zinzilik eta bukatu gabe.

Beñ baño geiagotan galdetu izandu da Erromara Zeremonietako Billera Sagradura, ea emakumeak egin bear duten belaun makurtzea edo erreberenzi utsa. Billerak eranzun du, emakumeak egin bear du. tela belaun makurtzea gizonak bezela.

Norbaitek erregutu zion Aita Santu Pio IX-garrenari eman zitzala induljenziak belaun makurtzea egiteagatik, erreberenzia mota au are

eta geiago zabaldu zedin, baña Aita Santuak etzituen eman nai izan, eskatzalleak osotoro arriturik geratzen zirala. Gero jakindu zuten obli-gaziozko jarduerari induljenziarik ezin eman dizayokeala, obligazioz-ko meza eta barauai ematen etzayoten bezela.

Sagrarioaren aurretik igarotzean egiten da belaun bateko errebe-renzia, eskuiko belauna bakarrik makurtu, eta lurra joaz ezkerreko or-poaren ondoan.

Belaun makurtzea ez da egiñ bear ibillian, ezpada Jaun Sakramen-tatuari erreberenzia egin nai dionak, artarako tokira iristean gelditu-rik, makurtzen du belauna, alchatzen da, eta zutitu ondoren asten da abian.

Jaun Sakramentatua agirian dagoenean, bi belaunakin egiten da erreberenzia. Aurrena jartzen da lurrean eskuiko belauna, eta gero al-damenean ezkerrekoa, eta egoera onetan egiten da buru makurtze aundi bat.

Ikusi dediñ gure Erljio Santuan zer balio aundia daukaten ezerez-keriak diruditen au bezelako jarduerak, bukatuko degu Jinebrako Obispo Mermillod jaunari gertatutako pasarte batekin.

Obispo jaun onek zeukan oitura, erbestetua izan zan baño len, arratsean atzeneko bisita egiteko Aldareko Sakramentu Santuari, Elei-zan iñor etzegoenean atean ondo ichiak ote zeuden ikusteko, eta pro-testanteak dauden tokietan aiñ bildur izatekoa dan Sakrilejioetatik Eleiza gordetzeko. Bere otoitz-aldia egin ondoren joaten zan aldare nagusi ondora, belaun makurtze aundi bat egiñ, eta alchatzean, muñ egiten zion lurrari errespeto gelagoren señalean.

Eleizan bera bakarrik zegoela uste zuen arrats batean otoitz jakiñak egiñ ta alchatzean, aditu zuen ots bat, eta atzera begiraturik, ona nun ikusten duen konfesategitik irteten beraren ezaguna zan Señora bat.

—¿Señora, zertan zaude emen ordu onetan?

—Protestantea naiz, dakien bezela, etorri naiz garizuma onetako berorren sermoi guzietara, eta aditu diot Jaun Sakramentatuaren ga-ñean esan duen guzia. Berorren arrazoyak sinismen osoan utzi ba-naute ere, duda bat geratzen zitzaidan, eta da, ea berorrek sinisten ote zuen predikatzen zuena. Eta orra zergatik etorri natzayon onera, ikus-tera ea bere bakarrean tratatzen duen Aldareko Sakramentua Jesu-kristori zor zayon errespetoarekin, erabakirik konbertitzera baldin ba-zan berorren portaera itzez adierazi digun erakoa. Etorri naiz, nere begiakkin ikusi det eta sinistatzen det. ¡Konfesatu naza!

Eta gaur dan egunean, Señora ura da Jinebrako dama katolikoen artean jayera aundienetako bat.

Ona nola belaun makurtze soll batek erabaki zuen anima baten salbazioa edo galera. Emendik argiro ezagutzen da persona batek zenbateraño mugitu ditzakean besteak ona jarraitzera bere ejemploarekin eta belaun makurtze eta erreberenziak ondo egitearekiñ.

MANUEL ANTONIO DE ANTIA.

(Traducción del Mensajero del Corazon de Jesús, correspondiente á Abril de 1887.)

---

## LA CRUZ MÁS SANTA



### LEYENDA DEL SIGLO XV

(CONTINUACION).

En aquellos tiempos en Bizcaya era empírico el arte de curar, que solo se adquiría con la observacion y la práctica y ejercian por aficion ó caridad algunos y por lograría otros.

Entre los criados de Martin Sanchez de Aranguren se contaba un buen anciano que pertenecia al número de los primeros, y en toda la Encartacion gozaba fama de habilísimo en aquel arte. Así Martin como su hija Marina tenian la mayor complacencia en que Peruchon de Carranza, con cuyo nombre era conocido aquel su servidor, se ocupase sólo en la cura de los dolientes que requiriesen su auxilio, ora fuesen estos criados ó parientes de la casa, ora fuesen extraños á ella.

Por ventura del caballero de Achuriaga, al ser conducido á la torre por Marina, que no era otra la compasiva y hermosa doncella que tan á tiempo para reparar en el mancebo y acudir en su auxilio habia